

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure ideia aurrera ateratzeko ezinbestekoak dira jarduera batzuk. Horretarako, gutako bakoitzak lan garrantzitsu bat izango du, bere zaletasun eta gaitasunen arabera izango dena. Jarduera horiek dira gure gimnasio eramangarrien diseinua, ekoizpena, kudeaketa eta merkaturatzea ahalbidetzen dutenak.

Lehenik eta behin, jarduera garrantzitsuena, dudarik gabe, gimnasioa sortzea izango da. Horretarako, diseinua lantzea, material egokiak aukeratzea eta prototipoak egitea beharrezkoa izango da. Talde lana izanik, hiru nagusien artean egingo dugu lan, nahiz eta langileak ere izango ditugun, horrela, lana errazago egingo dugu eta denbora asko aurreztuko dugu.

Mikel makinak sortzeko ardura duten langileetako bat da, eta bere lana funtsezkoa da enpresaren arrakastarako. Gimnasio eramangarrien ekoizpena ondo egitea ezinbestekoa da proiektu osoa aurrera eraman ahal izateko, izan ere, pauso hau behar bezala egiten ez bada, gainerako jarduerak ere baldintzatuta geratuko lirateke. Horregatik, Mikelen lana oso garrantzitsua da.



Nahia arazoak konpontzeaz arduratuko den pertsona izango da. Hornitzaileekin edo bezeroekin sortzen diren arazoak kudeatu eta konpontzea bere ardura izango da, beti arduraz eta eraginkortasunez jokatzuz. Baliabideei buruzko atalean adierazi dugun bezala, lan hori egiteko beharrezko gaitasunak ditu. Horrez gain, diseinatzaile lana ere egingo du, ideia berriak sortuz eta produktua etengabe hobetzen lagunduz. Bestetik, Nahia oso trebea da publizitatea egiten, marketinaren munduko goi mailako ziklo bat egin zuelako, hortaz gazte jendea erakartzeko publizitatearen arduraduna izango da. Azkenik, webgunearen diseinuaz arduratuko da, diseinu moderno eta berritzaileak sortuz, bezeroen esperientzia hobetzeko helburuarekin.



Iker langileen kudeaketaz, eta produktuaren errentagarritasuna ahalik eta handiena izan dadila arduratuko da; horretarako ezinbestekoa da Iker eta Nahiaren elkarlana eta komunikazioa erabatekoa izatea, edozein arazo edo hobekuntza egotekotan, Ikerrek Nahiari esan beharko dio, Nahiak hornitzaileekin edo bezeroekin harremanetan jarri eta arazoa konpontzeko. Bestetik, Ikerrek enpresaren kontuak eramango ditu, ekonomia zale amorratua delako eta ekonomia gradu bat ikasi zuelako, hortaz, postu horren kargu izateko ezagutzak baditu

Jarduera hauek guztiak funtsezkoak dira gure enpresak aurrera egin eta behar bezala funtziona dezan. Talde lanean oinarrituta eta bakoitzaren gaitasunak eta zaletasunak aprobetxatuz, helburuak errazago lortuko ditugu, eta aldi berean eraginkortasuna eta lan giro ona mantenduko ditugu. Guztion arteko ahaleginari eta sinergiari esker, berrikuntzari bide emango diogu. Horrela, gure enpresak ez du soilik martxan jarraituko, baizik eta modu

iraunkorreetan haztea eta kalitatezko emaitzak lortzea ere posible izango da. Horretarako, garrantzitsua izango da elkarri entzutea, iritzi desberdinak kontuan hartzea eta etengabeko hobekuntzaren alde lan egitea.